asteko gaia

Kutxen bat-egitea ◆

Mundu osoko merkatuak handitzen ari diren neurrian, banku eta enpresa handien arteko bat-egiteak nagusitzen ari dira azkenaldian. Urrutira joan gabe, Hego Euskal Herriko kutxen arteko fusioa hizpide dugu, eta 2000. urtera begira EAEko hiru kutxak bateratzea litekeena dela esaten dute zenbaitek. Estrategia horien inguruko bi iritzi ekarri ditugu lerrootara.

Kutxen konfederaziorat

• JOSEBA TOBAR-ARBULU •
[INGENIARIA]

Merkatuak handitzen diren heinean, entrepresak eta bankuak handituz joan ohi dira. Hala, estatuen gainean eraiki nahi den Europar Batasunean hainbat entrepresaren eta bankuren fusioak ikusi ditugu. Bien bitartean, aspertu arte aipatu den nazio estatuen desagertzea ez da burutu, eta estatuari omen dagozkion zenbait eginkizunek eta arautegik oraindik zuzen diraute. Aurrezki kutxen eta banku bigarrendarren jarduerak arautzen dituzten espainiar (eta frantziar) legeak hortxe daude indarrean.

Ortodoxiak dioenez, aurrezki kutxa eta banku bigarrendar mota horrek espainiar (eta frantziar) Banku Zentralaren *oinarri monetarioaren* beharrezko erreserba eduki behar dute kredituak gauzatu ahal izateko, Banku Zentralak moneten emisioa monopolioa izaten duelarik.

Estatu mailan, moneta zentralaren eginkizuna interes-tasen gainekoa da, zeren, ortodoxiaren arabera, interestasa horrek monetaren kantitatean, *likidezian,* eginkizun garrantzitsua baitauka. Eginkizun horren gauzatzea moneta-merkatuen bidez gauzatzen da, bankuen arteko merkatuan edo *open-market* delakoaren bidez. Eragiketa hori osatu egiten du beharrezko erreserben gaineko arautegi espainiar (eta frantziar) batek. Egungo bankusisteman, banku bigarrendarrak, aurrezki kutxak barne, *moneta zentrala* eskuratzeko beharturik daudenez gero beren bezeroak biletez edo txanpon metalikoz hornitzearren, edo Altxor Publikoari transferentziak egitearren, edo eta Banku Zentralaren aurrean bere beharrezko erreserben maila egokia mantentzearren, interes-tasa erregulatzeak monetaren kantitatea, *likidezia,* erregulatzea dakar. Tasa hori aldatuz, ekonomian *likideziaren* tasa aldatzen da, inflazioa kontrolatzeko.

Europa mailan 2002. urteaz geroztik Europako Banku Zentralak (EBZ) euroa jaulkiko duenetik, antzeko egoeraz mintza daiteke. Izan ere, EBZ euroaren *oinarri monetario* berriaren iturria izanik, berak arautuko luke zernolako erreserba eduki beharko duten banku bigarrendar guztiek; bezeroen aurrezkiak kontuan edukiz, nahiko normala da banku bigarrendarren arteko fusioak gauzatzea. Beraz, ortodoxiaren arabera, komenigarria da Euskal Herriko aurrezki kutxak nolabait bateratzea. Askoz hobeki, beraien konfederazioa burutzea, aurrezki kutxa norberak bere gune berezia, hots bezeria, gordez. Hala bada, Hego Euskal Herriko hainbat aurrezki kutxak subiranotasunaren aldeko urrats garrantzitsu bat egin dezakete.

Konfederazio horrek bezeria handiagoa lor dezake, beste hainbat banku bigarrendarrekin lehian arituz. Hori argi dago. Argi ez dagoena zera da: zertarako hori guztiori? Hau da, merkatuko al ditu konfederazio horrek hainbat arlotan beharrezko diren kredituak? Saiatuko da sare produktiboan inbertsioak egiten ala arituko da espekulazioan? Edukiko al du kontuan Aurrezki Konfederazio berri horrek gure Iparraldea ala espainiar estatura mugatuko da?

Honaino ortodoxia (aurrerakoi) batek esan diezagukeena. Baina, ortodoxiak dioena baino haratago joanez, sormen monetarioaren misterioek adierazpen bat edo beste merezi dute.

Bankugintza modernoan edozein bankuren eginkizunetan bi jarduera bereizten dira; emisio monetarioa eta jarduera finantzarioa. Lehena sormen/deuseztapen bat da. Bigarrena, kredituari dagokiona, jadanik eraturiko errentei dagokie: edozein bankutan eragile ekonomiko batek ezarritako gordailua geroago kreditutan beste eragile ezberdin bati emanen zaio.

Beraz, aipaturiko *likidezia* gaizki eraturiko kontzeptua da, zeren moneta bat-batean sortu eta deuseztu egiten baita. Gainera, ez dago inolako *oinarri monetariorik*, zeinetik banku bigarrendarrek eta aurrezki kutxek kopuru berezia hartu behar baitzuten beren kredituak gauzatu ahal izateko.

Konfederazioa dela-eta, arazoa ez datza *likidezia* handiago edukitzearren, edo eta *oinarri monetario*tik kopuru handiagoa izatearren, aurrezki kutxen bateratzean. Argi eduki behar dira bankugintzaren jarduera monetarioa eta finantzarioa. Batak ez dauka zerikusirik bestearekin. Beraz, Euskal Herriaren subiranotasunaren ikuspuntutik, Hego Aurrezki Kutxen konfederazioak onura ekarriko liguke baldin eta soilik baldin Konfederazio horrek bere kontabilitatean aipaturiko jarduera monetarioa eta finantzarioa ongi bereiziko balitu, kasu, bi departamentu ezberdinen bidez.

Aukera estrategikoa?

• GOTZON OLARTE •
[GIPUZKOAKO KUTXA-KO LEHENDAKARI OHIA]

Badirudi oso denbora gutxi iragan dela lurralde historikoetako aurrezki kutxek, aldaketari jarritako oztopo ugari gainditu ondoren, beren geroak bateratzea erabaki zutenetik. Erabaki estrategikoa izan zen, eta horrelako erabakietan ohi denez, aldekoak eta kontrakoak izan zituen; azken hauek askoz gutxiago izan ziren. Nire ustez, naturaltasunez onartu behar da beti izan direla etorkizuna aztertu ondoren hura konkistatzeko prestatu direnak, eta, aldi berean, historian iltzatuta gelditu direnak. Baina aurrezki kutxetako aginteorganoek aukeraz baliatzen asmatu zuten, eta, gaur egun, nekez esan dezake inork ez direla guztiz onuragarriak izan bat egiteko hartutako erabakiak.

Hamar urte iragan dira —oraindik hamar urte bakarrik!, esango dute batzuek— diputazioek eta hiriburuetako udalek duela ehun urtetik gora sortu aurrezki kutxa haiek bat egitea erabaki zutenetik, eta orain berriz ere planteatzen ari da kutxek bat egiteko komenigarritasuna, baina oraingo honetan autonomia erkidego osoan egingo da, zeina, bide batez esanda, guztiz erreala eta gaur egungoa baita, *historikoa* ez izan arren. Nire ustez, txalogarria da aukera hori seriotasunez planteatzea, eta ez erantzunen neurgailu gisa. Izan ere, etorkizunari buruzko galderak planteatzea, errealitateez eztabaidatzea bizitasun seinale da, hala nola erne gauden eta gauza guztiek hobeto funtzionatzea nahi dugun seinale.

Hortaz, gaia planteatuta dago, eta, atzo bezala gaur egun ere, aldekoak eta aurkakoak izango dira. Uste dut egoera posible hori naturaltasunez onartzea bizikidetza normalaren baitan sartzen dela, iritziak askeak direlako, eta halakoak izan behar dutelako, eta ez dugulako ahaztu behar erabaki estrategikoak, oraingo hau bezala, argudiatu eta arrazoitu egiten direla, baina ez frogatu. Erabakitzeko askatasunean oinarrituta egiten dira hautu horiek, hau da, ardura handiz.

Aurrezki kutxek berriz bat egitearen komenigarritasunaz gogoeta egiten ari den honetan, egoera ez da duela hamar urtekoaren berdina, baina bai oso antzekoa. Nire ustez, honako hauek dira bi egoeren arteko desberdintasun azpimarragarrienak: alde batetik, ez da beharrezkoa izango merkataritza- edo bulego-sareak berregituratzea edo arrazionalizatzea, enpleguaren ikuspegitik horrek dakarren guztiarekin; bestetik, ez dago zalantza berezirik erabakiak merkatu kuotaren eboluzioan izan dezakeen eraginaz. Ekonomia arloan gertatzen diren liberalizazio eta interdependentzia prozesu gero eta biziago eta orokorragoen ondorioz, gero eta konplexuagoa da finantza erakundeen errealitatea, eta, horregatik, aztertu beharreko gainontzeko gaiek, gaur egun, gutxienez atzo bezala, erantzun egokiak ematea eskatzen dute, etorkizun hurbilari begira arduraz erantzutea.

Eta gogoeta, besteak beste, honako gai hauen inguruan egin behar da: garapen politika, bai lurraldea zabalduz, bai beste finantza erakunde batzuetan partaidetza lortuz; teknologian eta antolaketa-informatika sistemetan izan daitezkeen berrikuntzei etengabe egokitzeko politika; bezeroentzako aholkularitza politika; moneta-, artekaritza- eta kapitalmerkatuetan egoera hobean sartzea; segmentazio eta espezializazio politika, bezeroei zerbitzu hobea eskaintzeko; zerbitzu zentralen eraginkortasuna... Gogoeta horietatik guztietatik, nire ustez, ondorio argi bat ateratzen da: komenigarria da planteatutako integrazioa.

Badakit beste batzuek aipatu ez ditudan beste zenbait kontu gehiago azpimarratuko dituztela, gure erkidegoan, nire ustez, norberaren lurraldearekiko atxikimenduak, zoritxarrez, neurriz gainekoa izaten jarraitzen duelako. Hala ere, uste dut garrantzitsuagoa dela etorkizuneko enpresa planteamenduen gainean gogoeta egitea, bai merkatuaren ikuspegitik, bai eta balioa —denontzako balioa— sortzeko gizarte ikuspegitik ere.

Euskal aurrezki kutxak, berriz ere, beste aukera estrategiko baten aurrean daude, eta sinetsita nago erantzun egokia ematen asmatuko dutela... planteatzen ari den integrazioaren aldeko erabakia hartuz.

• Erredakzioan itzulia